




BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



## PRENTSARAKO OHARRA

# **“EMAKUMEAK BIZKAIAN” JARDUNALDIETAKO HIRUGARREN TOPAKETAK SARE SOZIALEN ARRISKUEN AURREAN PREBENIDUTEA ETA NESKA GAZTEAK KARRERA ZIENTIFIKOAK AUKERATZERA ANIMETEA GURA DAU**

- **“EMAKUMEAK, GAZTERIA ETA GIZARTE-SAREAK”**, izenburuagaz, mahai ingurua egin da Bizkaiko Batzar Nagusietan, Itziar Errasti Psikologo hezitzaile eta DBHko genero ziber-indarkeriaren arloan adituagaz; Jorge Flores, “Pantallas Unidas” blogaren fundatzaile eta zuzendariagaz; Esmeralda Hernando “Conoce Bilbao con Esme”-ko blogerragaz; eta Marta Macho Kultura Zientifikoko Katedrako (UPV/EHU) “Mujeres Con Ciencia” blogaren argitaratzaileagaz.
- **“Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte”** jardunaldien bigarren edizioaren barruan egin dan topaketea Estíbaliz Apellániz Geologian doktoreak (UPV/EHU) moderatu dau.


(Bilbon, 2020ko zezeilaren 18an). “Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” jardunaldien hirugarren topaketea, eta barriro bete da Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko Egoitzako berbaldien aretoa. “EMAKUMEAK, GAZTERIA ETA GIZARTE-SAREAK” izenburua euki dauen topaketan, sare sozialen arriskuez eta Bizkaiko neska gazteak karrera zientifikoak aukeratzera animetearen garrantziaz egin da berba. Topaketak Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen (EAE) Bizkaiko Batzordeak antolatzen ditu, eta Bizkaiko Batzar Nagusien laguntza daukie.

Gaurko topaketea Estíbaliz Apellániz Geologian doktoreak (UPV/EHU) moderatu dau, eta honeek hartu dabe parte: Itziar Errasti Psikologo hezitzaile eta DBHko genero ziber-indarkeriaren arloan adituak; Jorge Flores, “Pantallas Unidas” blogaren fundatzaile eta zuzendariak; Esmeralda Hernando “Conoce Bilbao con Esme”-ko blogerrak; eta Marta Macho Kultura Zientifikoko Katedrako (UPV/EHU) “Mujeres Con Ciencia” blogaren argitaratzaileak. Zezeileko ganerako martitzenetan beste aditu batzuek egin daben moduan, Bizkaiko emakumeek XXI. mende honetan aurrean dituan jakin-minen, rolen eta erronken ganeko ahots eta eretxi barriak aurkeztuko ditue.

Itziar Errastik eta Jorge Floresek, mundu digitalean daukien esperientzia apur bat azaldu ostean, bizitza digital osasungarriaren ganean daukien idea eta sare sozialak eta teknologiak modu arduratsuan erabilteko modua azaldu dabe, horreen arriskuen barri emonez: genero “ziberindarkeria”, *ciberbullying*, *grooming*, *sexting*, *sextortsino* izenekoak, informazino faltea, tekno-adikzinoak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA




edo online pribadutasuna, beste batzuen artean.

Esmeralda Hernando eta Marta Macho blogerrak aurrekoek esandakoari adi egon dira. Lehenengoak sare sozialen munduan daukan esperientzia azaldu dau, “Cocinando Bilbao con niños” eta “Historia de Bilbao en pildoritas” argitaratu ostean. Lan horreek milaka jarraitzaile digital emon deutesiez. Marta Machok, 2016ko Emakunde saridunak emakume zientzialariek gizartearen aurrerapenean egin daben ekarpena errebindikau dau barriro, eta Bizkaiko neska gazteak matematiketara eta ezagutza zientifikora, orokorrean, bildur barik gerturatzera animau ditu, bere blog zientifikotik egiten dauen moduan.

Aurton, Emakumearen Nazinoarteko Egunaren (martiaren 8a) aurretik egingo diran “Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” jardunaldiek, proiektinoa emon gura deutesie emakumeek hainbat arlotan, kirolean, barrikuntzan, teknologian, sare sozialetan edo kudeaketa sortzailean, daukien presentziari, emakumeen eta gizonen eretxiakaz. Zezeilaren 4an hasi ziran jardunaldiak datorren martitzenean amaituko dira, “EMAKUMEAK SORMEN-KUDEAKETAN ETA KOMUNIKAZIOAN topaketeagaz, eta euren eguneroko jarduna erantzukizuneko lanpostuetan gauzatzen daben emakumeen presentzia ari dira izaten.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



## NOTA DE PRENSA

# EL TERCER ENCUENTRO “MUJERES EN BIZKAIA” PREVIENE DE LOS PELIGROS DE LAS REDES SOCIALES Y ANIMA A LAS JÓVENES A ELEGIR CARRERAS CIENTÍFICAS

- Bajo el título “**MUJERES, JUVENTUD Y REDES SOCIALES**”, se ha celebrado en las Juntas Generales de Bizkaia una mesa redonda con la participación de Itziar Errasti, Psicóloga Educadora y experta contra la ciberviolencia de género en la ESO; Jorge Flores, Fundador y Director de “PantallasAmigas”; Esmeralda Hernando, Blogger de “Conoce Bilbao con Esme”; y Marta Macho, Editora del Blog “Mujeres Con Ciencia” de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU.
- El encuentro, que forma parte de la segunda edición de las jornadas “Mujeres en Bizkaia. Cómo somos, cómo se nos ve” ha sido moderado por Estíbaliz Apellániz, Doctora en Geología (UPV/EHU).


(Bilbao, a 18 de febrero de 2020). Tercer encuentro de las jornadas “Mujeres en Bizkaia. Cómo somos, cómo se nos ve”, y nuevo lleno en la sala de conferencias de la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia. Bajo el título “MUJERES, JUVENTUD Y REDES SOCIALES” hoy se ha hablado de los peligros de las redes sociales y de la importancia de animar a las jóvenes bizkainas a que elijan carreras científicas. Estos encuentros están siendo organizados por la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP) y cuentan con la colaboración de la Cámara vizcaína.

La jornada de hoy ha sido moderada por Estíbaliz Apellániz, Doctora en Geología (UPV/EHU) y ha contado con la participación de Itziar Errasti, Psicóloga Educadora, experta contra la ciberviolencia de género en la ESO; Jorge Flores, Fundador y Director de “PantallasAmigas”; Esmeralda Hernando, Blogger de “Conoce Bilbao con Esme”; y Marta Macho, editora del Blog “Mujeres Con Ciencia” de la Cátedra de Cultura Científica de la UPV/EHU, quienes han vuelto a aportar, tal y como lo han hecho otras expertas y expertos el resto de martes de febrero, nuevas voces y discursos sobre los planteamientos, las inquietudes, los roles y los retos a los que se enfrenta la mujer vizcaína en este siglo XXI.

Itziar Errasti y Jorge Flores, tras hacer un breve repaso por su experiencia en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA



el mundo digital, han trasladado al público asistente su idea de vida digital saludable, y de cómo hacer un uso responsable de las redes sociales y las tecnologías, advirtiendo de los peligros: la “ciberviolencia” de género, el *ciberbullying*, el *grooming*, el *sexting*, la *sextorsión*, la desinformación, las tecnoadicciones o la privacidad online.

Buenas notas han tomado las blogueras Esmeralda Hernando y Marta Macho. La primera ha explicado su experiencia en el mundo de las redes sociales, tras publicar “Cocinando Bilbao con niños” e “Historia de Bilbao en pildoritas”, lo que le ha aportado miles de seguidores digitales. Y, en paralelo, Macho, premio Emakunde 2016, ha vuelto a reivindicar la aportación de las mujeres científicas al progreso social, y ha animado a las jóvenes vizcaínas a que se acerquen sin miedo a las matemáticas y al conocimiento científico en general, tal y como lo viene haciendo desde su blog científico.

Este año, las jornadas “Las mujeres en Bizkaia. Cómo somos, cómo se nos ve”, antesala a la celebración del Día Internacional de la Mujer (8 de marzo), están proponiendo analizar la proyección de la labor realizada por las mujeres en áreas tan dispares como el deporte, la innovación, la tecnología, las redes sociales o la gestión creativa, abordando cada una de las cuestiones con opiniones tanto femeninas como masculinas. Las charlas, que comenzaron el 4 de febrero, y concluirán el próximo martes con el encuentro “LAS MUJERES EN LA GESTIÓN CREATIVA Y LA COMUNICACIÓN”, están contando con la presencia de mujeres que en su día a día desarrollan su actividad profesional en puestos de responsabilidad.